

LEZOKO UDAL LUDOTEKA 2020/2021

Covid-19aren aurrean hartutako prebentzio neurrien laburpena.

Erreferentzia bezala, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Departamentuak eta Gazteriako departamentuak hartutako neurri eta protokolo hauek aintzat harturik:

- Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan koronabirusaren (SARS-CoV-2) aurrean zer-nola jarduteko protokolo orokorra. 2020-2021 ikasturtea (2020-06-25)
https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/koronavirusa_coronavirus/eu_def/adjuntos/protokolo_orokorra_covid_19_2020_2021_ikasturtea_e.pdf

- 2020-2021 ikasturtearen hasierarako jarduketa-protokolo osagarria eta ikastetxeetan covid-19 kasuak agertzen direnerako jardunbideak (2020-09-18)
https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/koronavirusa_coronavirus/eu_def/adjuntos/Protokolo_osagarria_ikasturte_hasiera_kasuen_kudeaketa_2020-09-18_e.pdf

- Lan-arriskuen prebentziorako neurriak EAEko ikastetxeetan, COVID-19ren eraginpean egoteko arriskuari aurre egiteko 2020/2021 ikasturtea.
https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/koronavirusa_coronavirus/eu_def/adjuntos/medidas_prevencion_202_21_e.pdf

Lezoko Ludoteka azaroaren 1etik aurrera hasiko da berriz aurrez aurreko eskuhartzearekin. Horregatik, haur, familia eta hezitzaileen segurtasuna eta osasuna bermatzeko, honako neurri hauek ezarri dira:

1. IZAERA OROKORREKO NEURRIAK:

Ludotekara 5 eta 10 urte bitarteko haurrak joango dira.

Ludotekara joan aurretik, haurrak tenperatura hartu beharko dute.

Ludotekako erabiltzaile guztiek, hezitzaileek eta ludotekako gainerako langileek musukoa jantzita izan behar dute ludotekako instalazioetan dabiltzan bitartean.

Ludotekan ezingo da jan. Guztiz debekatua egongo da janaria bertan kontsumitzea.

Ura edan ahal izateko, bakoitzak bere ur botila ekarri beharko du, egunero etxera eramán beharko duena, ezingo da ludotekan utzi.

Ludotekan egoteko aldatzeko zapatillak eramango dituzte (etxeko zapatillak), bertan utziko dituzte beraien izena duen banakako poltsa batean.

Ludotekan dagoela, adingabekoren batek Covid-19arekin bateragarri den sintomatologia azalduko balu, bakartze gelara eramango litzateke guraso edo tutoreak hura jasotzera heldu arte.

- Temperatura >37°
- Eztula
- Arnasa hartzeko zailtasuna
- Eztarriko mina
- Usaimenaren galera

COVID-19arekin bateragarri diren sintomak edo kutsatuta dagoen zalantza dituen pertsona orok (haur, hezitzaile edota gainerako langileak) ezingo du ludotekara joan.

Bi talde estanko sortuko dira, 14 haur eta hezitzailea batez osatutakoak, kutsatze gurutzatua ekidin ahal izateko. Hezitzaile bakoitzak talde finkoa izango du. Hezitzaileek, egunero, beraien taldeko parte hartzearen erregistroa bete beharko dute.

Guraso edota tutoreek ezin dute ludotekan sartu. Hezitzaileekin hitz egin nahi izanez gero, hitzordua eskatu beharko da emailaz (lezokoludoteka@hezkide.org)

2. SARREREN KONTROLA ETA KUDEAKETA:

Ludotekara zerbitzuan izena emandakoak eta hezitzaileak sartu ahal izango dute. Gurasoak, tutoreak, senitartekoak eta laguntzaileak ez dira sartuko, baldin eta ezinbestean ez bada, edota aurrez hitzordua eskatu ez badute.

Haur talde bakoitzak sartzeko ordu bat izango du, sarreran pilaketak ekiditeko helburuarekin, talde bakoitzak 5 -10 minutuko aldea izango du sartu eta ateratzeko.

Gurasoak edota tutoreak garaiz iritsi beharko dira, sarrerak pilaketak ekiditeko. Haurrak ezin badu esleitutako orduan joan edota lehenago irten beharko badu, arazorik ez izateko, hezitzaileak aldeztu aurretik abisatu beharko dira (ahal dela 16.30ak baino lehen email bat bidaliz).

Talde bakoitzaren sarrera eta irteera ordutegia guraso edota tutoreei taldeak jakin bezain laster jakinaraziko zaie.

3. ESPAZIOEN KONTROLA ETA KUDEAKETA:

Gune komunak edota pasabideak ahalik eta gutxien erabiliko dira, eta ahal dela, ez dira jarduerak egiteko erabiliko. Halako lekuetan lurrean markaturiko ibilbideak eta zirkulazio noranzkoak errespetatuko dira, baita pertsonen arteko segurtasun tartea ere.

Haur talde bakoitzak komun bat izango du esleituta eta bakarrik hura erabili ahal izango du. Komunak bakarka erabili beharko dira, taldeko komunean norbait egongo balitz, itxarote garaian pertsonen arteko tartea mantendu beharko da.

4. INSTALAZIOEN HIGIENE ETA GARBIKETA NEURRIAK:

Derrigorrezkoa da ludotekan sartzean eta ateratzean eskuak desinfektatzea. Horretarako gel hidroalkoholikoak egongo dira ludotekako sarreran.

Estalkia duten zabor-ontziak jarriko dira ludotekako gela nagusian eta komunean.

Ludoteka egunero garbitu da.

Ahalik eta material gutxien erabiltzea gomendatzen da.

Jostailu eta jolasen garbitasuna eta desinfekzioa bermatu ahal izateko, ezin izango dira kanpoko jostailuak edota jolasak ludotekara eraman, bertakoak bakarrik erabiliko dira.

5. NEURRI OSAGARRIAK:

Ludotekan hurrengo informazio kartelak jarriko dira: eskuen higie egokia, arnasteko higie (eztula eta doministiku egiteko modua), pertsonen arteko segurtasun tarteak...

OHARRA: osasun- eta hezkuntza-agintariek ezarritako irizpideei jarraituz, kontingentzia plan honetan ezarritako neurri guztiak berrikusiak eta moldatuak izan ahalko dira, osasun egoerak hala eskatuko balu.